

Eder sortu-ezaren iduri argia,  
gaixoaren itxaro, maitasun eredu;  
gogoz Jainkoantzat gai, soñez ozkarbia,  
betikoa ezker. Zeu ederren zaitugu.

Itzalpe atsegiña, Ama biotz-bera,  
sarrirontzun oi nik zure eztidun mintzo;  
ots dagistazu bigun barrengo muiñera;  
goiz-arora dabesan urretxindor antzo.

Begi-lauso, gogo-min, elorritz biotza,  
ludi-itxasoz jbil naz izu-lauorrian;  
zure kaia, atzenez, iku, Izar aratza:  
ankilla dot egotzi ditxo bare-mian.

Maite-altxor aurki dot magal ezti ontan,  
poz-untzi ertzik bako, samin-aringarri;  
ta, zurea jzan naiez, naukazu miñetan.  
Zakidaz aldi oro Ama maitagarri.

### LO, JOSU!

Nazaret bide egaleko  
bedar gaiñean kuku,  
garí-buruen otsera,  
lo dago Aurtxo Josu.

Kirkillak, maite minduta,  
—neskatx taldea iduri—  
zotal-jauregi atadian  
daukaz kantaka, urduri.

Aizetxoa, lapur antzo,  
mendiska ertzez dabil;  
txoriak, izpi-euritan,  
iñolaz ezin ixil.

Aize, otoi, ez itxartu  
Aurtxo begi oztiña.  
Bekaitzez legokez lorak!  
Odei ene atsegiña!

Laga, laga, geldi lotan  
bide gaiñean kuku;  
gari-buruen otsera  
lo, apatz, ene Josu.

### LORARIK ZURIENA

Ene Ama: almenen egon eziña!  
Zuregan biotzak naiko atsegiña:  
argi-ariz urrun doakit adiña:  
kanta-zale nozu, azka ene muña.

Ozkorria bera bekokin dozula,  
goizeko larrosa baizen zut-mardula,  
oltzaren erdian ederra zakustaz:  
nire eder-miñaren aseza zakidaz.

Errugea zara, oi Ama samurra!  
Sortzetik erruge, zuritan edurra,  
laiñorik bako ortzi garbi ta oztiña,  
aingeru-begiak beste eder ta urdiña.

Zure jantziaren gorrian dirdaika,  
*jarren* antzera, liliak eundaka;  
kutsu bage, aratz, eder, txukun guztiz,  
usaiña dixurzu larrosena ibilliz.

Giza-biotzetan maitasun sugarra,  
eguzki egunez ta gabaz jzara,  
zelatan lorea sor daroan Urtzi  
zeuk ekarri zendun, urre zurizko untzi.